



Mundua
lo dagoen bitartean

Mundua lo dagoen bitartean

Patxi Zubizarreta

EGITURA

1. GAUA sintonia-eszena: irratian
eszena: unibertsitatean
2. GAUA sintonia
eszena: kolunpioetan
musika
kamioia 1
3. GAUA sintonia
musika
eszena: zelatan
4. GAUA sintonia
kamioia 2
musika
eszena: geltokian
musika

EPILOGOA

1. gaua



SINTONIA +ESZENA: irratian

KARLOS: Bizitzan bi motatako hitzak daude: egunekoak eta gauekoak. Eguneko hitzek gure pentsamenduarekin dute zerikusia, gure arrazoiarekin, gure erabakiekin. Gaueko hitzak, berriz, geure sentimenduetatik sortzen dira, geure irrika eta desioetatik, eta askoz ere libreagoak dira, benetakoagoak. Hala bada, ongi etorri gaueko hitzen hitzordura, ongi etorri *Mundua lo dagoen bitartean* irrati saiora, sentimendu, irrika eta desioen ordura. Goizaldeko ordu bata eta zazpi minutu diren honetan, mikrofonoak zabalik dituzu. Dei bat aski duzu, deitu 94 613 42 40 telefonora eta kontaiguzu nahi duzuna, edo parte hartu gure txatean, mundualo.net helbidean, eta idatziguzu nahi duzuna. Erredakzioan, Eba Ugalde; pianoan, Chuck Aranbarri; eta, mikrofonoan, ni neu, Karlos Fisher. Bai? Badirudi badugula baten bat gaueko hitzak esateko prest.

MARKOS: Epa, gabon. Nik, zera, nik Juneri buruz hitz egin nahi dut. Nik June Gasteizen ezagutu nuen, unibertsitatean. Ez dut esango ze fakultatetan, ze ez nuke nahi inortxok ere zeratzea, ezagutzea, ez hura ez ni. June. Hasiera-hasieratik txoratu ninduen. Haren atzealdean esertzen hasi nintzen, atzealdeko mahaietan esan nahi dut. Beltzarana da June, ilea ere beltz-beltza du, eta hasieratik ez dakit zer izan zen, haren tristezia, ez, tristezia ere ez zen, malenkonia, beharbada horixe zen, bai, malenkonia, eta zera, txoratu egin ninduen. Bai, beharbada hori guztia zen, eta nabarmena ez izatea, baina behin arretaz begiratzen hasiz gero, liluragarria da. Ummm. Egun batean, ongi gogoan dut, haren ile luze bat, ile beltz-beltz bat nire mahaira jausi zen, suge baten antzera. Huskeria eman dezake, txorakeria, baina nik ile hura jaso egin nuen eta harrezkero kutxa batean gordea daukat. Premonizio bat iruditu zitzaidan. Harrezkero suge batek heldu izan balit bezalaxe nabil. Bilboko zen June. Zera bat dauka ezkerreko masailean, orezta bat, lunar bat, eta nik orezta hura desio nuen, gero eta gehiago, obsesioraino, eldarnioraino. Eta beharbada hainbeste desio izatearen poderioz, azkenean gertatu egin zen. Gau batean, Gabonetako oporren aurretik, gelako afaria egin genuen txino batean. Nik, ahalik eta disimulatuen, Juneren alboan esertzea lortu nuen, eta

horrekin nahikoa nuen, zoriontsua nintzen: atzean egotetik alboan egotera alde handia dago, gero: presentzia, berotasuna, usainak... Ikaskideak irakasleei buruz gaizki esaka eta trufaka aritu ziren, gero txisteak eta pasadizoak kontatu zituzten, betikoa, baina bai June bai ni ixil-ixilik egon ginen, baina komunikatzen. Ez dakit nola, ez dakit zein hurbildu zen lehena, zein gehiena, baina konturatu gabe gure belaunak mahaipen elkar ukitzen ari ziren, eta biok ere kontziente ginen. 'Zoriontsu al zara?', galdetu zion nire belaunak harenari, 'Zure alboan bai', erantzun zidan Junerenak. Afari osoan belaunak pega-pega eginik izan genituen. 'Zure falta sumatzen nuen', esan zioten elkarri. Ez dut kontatuko belaunek elkarri esan zioten guztia, ez dut den-dena kontatuko. Bakar-bakarrik esan nahi dut gau hartan Juneren orezta oso gertutik ikusi ahal izan nuela, obsesioraino, eldarnioraino. Eta haren ileen basoan galdu nintzen: Juneren ileak usaindu nituen, laztandu nituen, dastatu nituen. Zoragarria izan zen. Eta zera, barregarria ere bai (isilunea). Desiozko hiru hilabeteren ondotik, afariko desiozko hiru orduren ondotik, eskuketan hasi eta, zera, zakila ukitu eta, hiru segundoren ondotik, zeratu egin nintzen, zartatu, eta isuri egin nuen... Barregarria, bai, erridikulua esan nahi dut. Dena dela, ederra da, gaupasa baten ondotik, egunsentiak zu norbaiten eskutik helduta harrapatzea.

KARLOS: Ederra zure kontaketa izan da, Markos, baina iruditu zait Juneri buruz hitz egiteko, tarteka lehenaldia erabili duzula... Badirudi...

MARKOS: Bai, uste dut badakidala zergatik aritu naizen lehenaldian hitz egiten. Batetik, gau harrezkerotik ez dudalako antzeko plazerik sentitu, bai, esan egingo dut, gaueko hitzak dira, ezta? Gau harrezkerotik gure belaunak erabat urundu ziren, ez naiz harekin korritu izan, harekin batera esan nahi dut; eta, bestetik, June, June (isilunea) desagertu egin da, bereziki horregatik hitz egingo nuen lehenaldian. Gaur astelehena da, beno, asteartea jada, goizaldea, eta Junek joan den asteko ostiralaz geroztik ez du erantzuten. Haren ikasle pisuan ere ez dute berri gehiagorik: ostiralean, bi astez behin edo egiten zuen bezala, Bilbora joan zela, baina ez dela itzuli; hori besterik ez dakite. Larri nago, ez dakit zer egin. Horregatik deitu dut zure irratsaia. Beharbada, norbaitek... June ez zegoen ongi, June ez da ongi egon. Eta gu geu ere ez gara ongi egon. Azken asteotan oso makal zegoen, ez dakit, malenkonía baino zerbait gehiago zen. Nik, zera... (negarra).

KARLOS: Lasai, Markos, lasai zaitez. Gazteak zarete. Gauak hizketarako oso giro aproposa eskaintzen digu, baina, era berean, problemak, gauez, handitu egiten dira, biderkatu, mamu bihurtu ere bai. Baina etorriko da egun argia eta denak bere benetako neurria hartuko du. Deitu al duzu Juneren gurasoen etxera? (isilunea). Badirudi eskegi egin duela. Tira, Chuck, jo doinu eder bat, Juneren omenez, badaezpada ere entzuten ari baldin bada.

ESZENA: unibertsitatean

KARLOS: Denbora aurrera doa, eta laster aste honetako igarkizuna proposatuko dizuet. Baina horren aurretik, Ebak, gure erredaktoreak, gaur ere farozainaren mezu grabatua dakarkigu. Edonon zaudela, farozain ez bazara ere, jakizu ulertzen dugula zuzenean deitu nahi ez izatea, baina, aldi berean, eskertzen dizugu gurean egon nahi izatea, eta zure mezua erantzungailuan uztea. Aurrera, farozain.

FAROZAINA: Gaurkoan Rosa Monteroren bi testu ekarri ditut. Batak honela dio: «Lehendabiziko aldiz maitemintzen direnean, gazteek helmugatzat hartzen dute amodio berri hori, lehen amodio hori betirako biziko diren tokia izango balitz bezala; baina ez dira konturatzen lehen amodio hori oztopo lasterketa baten hasiera dela, hau da, biziko dituzten amodio gorabeheren abiapuntua besterik ez...». Bigarren testua amodioaren iraupenari buruzkoa da: «Betirako pasioek batz bestei sei hilabete irauten dute; eta gero, dena ongi ateraz gero, bizitza osorako amodio bihurtzen dira, hau da, gehienez ere beste bi urte iraun dezakete. Guztira, hasierako liluraren eta geroko iraupenaren artean, bi urte eta erdi gutxi gorabehera».

KARLOS: Goizaldeko lauak hurbiltzen ari dira, bi ordu eta erdi jardun dugu kontu-kontari, *Mundua lo dagoen bitartean*. Eta gaur, asteko lehen irratsaioa denez, ohi bezala, asteko igarkizuna azalduko dizuet, eta ez ahaztu Karibera bidaiaria bat dagoela jokoan. Erne, beraz. Hona hemen aste honetako enigma txikia, mundua lo dagoen bitartean esna egon gaitezen. Ea: egunkari bateko zuzendaria bidaiaria luze bat egitekoa da, eman dezagun Japoniara, eman dezagun Australiara; abiatu aurretik, baina, goizean, erredakziora joan da sartu-irten bat egitera, eta hara non, gau zaintzaile bat, segurata bat, kopetilun hurbildu zaion eta esan dion: `Bart amets asko egin dut, baina, batean, zuk hartu behar zenuen hegazkinak istripua izan du, airean lehertu da, eta nik uste hobe duzula bidaiaria atzeratzea´; hala bada, amesgaiztoa errealitate bihur ez dadin, badaezpada ere, zuzendariak bidaiaria atzeratu du eta harri eta zur geratu da eguerdiko albistegia ikustean: berak hartu

behar zuen hegazkinak istripua izan du aireratu eta berehala; bidaiari guztiak hil dira. Ez bat eta ez bi, zuzendariak zaintzaileari deitu dio eta, zero askoko txeke bat sinatzearekin batera, lanik gabe utzi, eta kanporatu egin du. Eta hona galdera: bizitza salbatu baldin badio, zergatik izan da hain esker txarrekoa, zergatik utzi du lanik gabe? Ea ba, gautxoriak, ea nor den gai aste honetako igarkizuna asmatzeko. Berriro ere gogorarazi nahi dizuet asmatzailearentzat sari bikaina dugula, bi lagunentzako bidaia bat nora eta Karibera!, maitalearen, paisaiaren, ur turkesa epelen mimoak jaso ditzazun. Gabon eta izan uros.

2. gaua



SINTONIA

KARLOS: Ongi etorri solaskide aurpegigabeen hitzordu honetara. Bakartion bilgune honetan nahi duzun bezala mintza zaitezke. Damurik gabe, erru sentipenik gabe, erreparorik gabe. *Mundua lo dagoen bitartean* esaten dugun guztia sekretupean da, nahiz eta ozenki esan, eta horra hor gure paradoxa eta, era berean, gure abantaila handia. Badirudi prest dugula ordu txikitako lehen solaskide sekretua.

MARKOS: Epa, gabon. Nik, zera, ez dakit. Esan nahi dut sentitzen dudala atzokoa, esan nahi dut (isilunea) June oraindik ez dela agertu. Ikasle pisu batean bizi zen, ni bezala. Barkatu: hasi naiz berriro ere lehenaldian hitz egiten. Bizi dela esan nahi dut, ikasle pisu batean, baina oraindik ez da itzuli. Gaur goizean, bertan egon naiz, baina inork ez daki ezer eta ni dagoeneko hasia naiz egunkarietako ezbeharren atalak, zeratzen, irakurtzen (isilunea).

KARLOS: Ezbeharrak...? (isilunea) Juneren lagunek ez dizute ezer argitu, beraz.

MARKOS: Ulak, haren pisukideak, esan dit Junek esan ziola aurreko astean mediku frogak egin zituela eta emaitzak ere jaso zituela. Eta zera, ezer ez urdailean, ezer ez odolean, gaitzik ez bihotzean, eta hala ere Ulari esan ziola `Ba ni izurratuta nago`. Ulak ez daki June non egon daitekeen, baina oraindik ez du haren etxera deitu nahi. Badaezpada ere. Eta ni ere izurratuta nago. Txinoko afariaz geroztik, ziur nengoen gureak ezin zuela atzera egin, ez dakit, nolabait ere zerbaiten abiapuntua izan behar zuela, baina bai zera: ikasgelan orain elkarren alboan esertzen gara, eta bai, hurbil gaude, baina Junek argi utzi zidan: gertatuak gertatu, lagunak ginen, eta ez maitale, txinokoa lapsus bat izan zen, parentesi huts bat, eta, zera, haren pisura joan nintekeen, baina ez lotara... Konplize hitza ere erabili zuen, konplize...

KARLOS: Atzo kontatu zenigun June aspaldian oso makal dabilela, baina orain gutxienez badakigu osasunez ongi dagoela. Zerbait bada. Baina akaso haren barrena adierazi nahi zenuen, Markos, haren bihotza akaso.

MARKOS: Gauza asko kontatu zidan Junek, baina batez ere damua agertzen zuen: unibertsitatera etorri izanaz damutzen zen; institutua amaitzean, gurasoei `urte sabatiko` bat hartzeko asmoa erakutsi zien, Dublinera joango zen, Galesera, Kopenhage ere aipatzen zuen, *au pair* joango zen, puben batean zerbitzera, dendaren batean saltzera, ingelesa finkatuko zuen eta, bien bitartean, zer ikasi erabakiko zuen. Dena dela, unibertsitatera joatekotan, argi zuen Bilbotik kanpora joango zela, gutxienez etxetik apur bat erretiratzen hasteko. Baina lehen unibertsitate ikasturtea oso aldapa gora gertatzen ari zitzaion. Zitzaion, berriro ere lehenaldian. Mundulogia hitza ere erabiltzen zuen Junek, mundulogia, munduaz ezer gutxi zekiela, eta gose zela. Ez dakit. Nik uste esperientzia eta, batez ere, pertsonen gose zela. Eta horregatik utzi ninduela ni. Utzi edo. Konplize ginen (isilunea). Beharbada alde egingo zuen. Gurasoek ez zioten kanpora joaten utzi, bai, eta beharbada horregatik alde egin du orain. Baina auskalo. Oso kezkatuta nago: mundulogia... Gainera, ni haren konplizea banintzen, zergatik ez dit ezer esan? Ezin dut ukatu: desengainatua sentitzen naiz. Norbaitek ikusi izan balu sikiera: gogoratu, ile beltz-beltza, ugaria, eta batez ere ezkerreko masailean daukan orezta hori...

ESZENA: kolunpioetan

KARLOS: Mila esker, Markos, zure hitzengatik. Dena argituko da. Ikusiko. Nik uste June pozik egon daitekeela zu bezalako lagunak izateaz. Onartzen baldin badidazu, niri, makalaldietan, adorea ematen didan ipuin bat kontatuko dizut. Hara: egun batez, hegazkin pilotu batek hots arraroren bat entzun du hegazkineko motorrean; palankak eta botoiak ikusmiratzen hasi denean, zirrikitu batetik arratoi bat ikusi du, karras-karras, kable bat jaten; alarmaren argi gorria ere piztu da eta pilotuak ez daki zer egin, nekez harrapa dezake arratoia, eta, hurbilen dagoen aireportua, oso urrun dago. Bereak egin duela sentitzen du, baina, etsitzekotan dela, halako batean ideia bat bururatu zaio: hala bada, hegazkina gorantza zuzendu du, sei mila metrora igo da, zazpi mila metrora, eta arratoia, oxigenorik gabe, laster batean hil da... Oso ongi ez zaudenean, gehiago hondoratu beharrean, gora egiten saiatu beharra dago. Ez etsi, Markos, gazteak zarete. Gaztetan itxaropenik ez baldin badago... Beste dei bat dugu. Aurrera, Ruben?

RUBEN: Bai, nik ere amodio eta desamodio baten historia kontatu nahi nuen. Igoal bikote bakoitzari irudituko zaio bere historia atipikoa dela, besteenarekin konparatuta, haiena berezia dela, bitxia... Ba nik esan dezaket gurea halakoa izan zela (isilunea). Orain dela bi urte pasatxo, hiru koadrilaren artean garaje bat alokatu genuen. Inaugurazio jai bat antolatu genuen, baina zerbait berezia egin nahi genuen: bakoitzak, handik edo hemendik, pilula bat eraman beharra zeukan, eta era eta jatorri askotako pilula haiek pitxar batera bota, garagardotan ondo-ondo eragin, eta tragoa jotzen ibiliko ginen. Egia esan, edabe hartatik edan ondoren gertatu zenaz ez naiz gehiegi gogoratzen. Beno, bai, gero jakin ahal izan nuenez, lagunak berandu erretiratu ziren, oso berandu, baina neska bat eta biok sofa luzean lo seko geratu ginen. Goizaldean, ni esnatu nintzen aurrena, eta flipatuta geratu nintzen egoeraz jabetu nintzenean: neska hura ez zen edozein neska, deabruaren buztana!, neska hura festan zehar ezagutu nuen, beste koadrila batekoa zen eta, zera, kristorena zen, badakizu? Eta esnatu nintzenean, nire alboan zegoen, sofan etzanda. Hasieran begira-begira egon nintzaion, eta ederragoa iruditu zitzaidan. Gero hura esnatzen saiatu nintzen, baina sekulako aitzurra izan behar zuen, ze ez zuen zirkinik ere egiten. Orduan nik, gehiegi pentsatu gabe, konturik handienaz alkandoraren botoiak askatu nizekion. Astiro-astiro laztandu nuen, esku barrenarekin: aurpegia, lepoa, bularrak... Eskua hartu nion gero, eta haren alboan etzan nintzen, harik eta lo seko geratu nintzen arte. Esnatu nintzenean, niri begira-begira topatu nuen, nire eskua askatu gabe... Horrela hasi ginen. Ematen zuen betidanik ibili ginela elkarrekin, ematen zuen elkarrentzat eginak ginela, ematen zuen gurea oso naturala zela. Pitokeria eman dezake, baina haren hankartean mikroklima aparta zegoen; putza: dago... Sexua ere oso natural etorri zen eta garajea ongi asko baliatu genuen. Mendia ere atsegin genuen, pagadiak, kobazuloak, eta hondartza, hondartza bakartiak, gauzez. Baina gero erabaki beharra etorri zitzaion. Eta bera unibertsitatera joan zen eta ni Bilbon geratu nintzen, lanbide eskola batean. Baina, badakizu, abisatu gabe, eta utzi egin ninduen. Esaten zuen bost axola zitzaiola ni Lanbide eskola batean ikastea, hori inondik ere ez zela arrazoia, baina ez dakit ba... "Bobolio", esaten zidan (isilunea). Ze putakeria! Putza. Igoal farozainak arrazoi zuen. Amodioak bi urte eta erdi irauten zuela esan zuen, ezta? (isilunea). Badago detaile bat, orain arte aipatu ez dudana detaile bat, igoal garrantzirik gabekoa: haren izena, haren izena June da... Ah, eta Karlos, zer arraio da uros delako hori? Irratsaioaren amaieran beti uros izateko esaten duzu, baina nik ez dizut pitorik ere ulertzen.

KARLOS: Ufff... Ezustean harrapatu gaituzu, Ruben (isilunea), June (isilunea). Ah, bai, uros, galdegin didazu, uros izateak zoriontsu izatea esan nahi du. Baina orain, nik uste, onena musika apur bat entzutea izango dela. Ea Chuck-ek zer nolako oparia digun gordea.

SINTONIA (Elurretan idatzia)

KARLOS: Chuck-ek bai jakin zer eta noiz aukeratu. Beste dei bat? Bai, Mario?

MARIO: Hi, Karlos, kamioitik deitzen diat, martxan, esku batean mobila eta bestean zigarroa, orain pikolo guztiak lo zaudek eta zuena entzuten ari nauk, hemen noak, Gaztelako lautadan barrena, *a 140*, triparekin gidatzen. Kar-kar-kar. Aizak, espabilizina apur bat behar ditek umemoko horiek. Entzun al didak, espabilizina apur bat. Desamodioa denok bizi izan diagu, amodioak denok hil gaitik noiz edo noiz, eta norbait hil ez baldin badu, benetan hilik dagoen seinale... Kantuak ere argi asko dio: *Triste bizi naiz eta, hilko banintz hobe; badaukat bihotzean, hainbat atsekabe; dama bat maitatzen dut, baina haren jabe; sekula izateko, esperantzik gabe*. Kar-kar-kar. Eh! Oraintxe neska bat ikusi diat, errepide bazterrean autostop egiten. Aizak, eta orezta bat ez dik ba, ezkerreko masailean! Gelditu egingo nauk. Kar-kar-kar. Txantxa bat zuan. June delako hori beste bakarren baten besoetan egongo duk, gu denok baino goxoago. Eta ongi egiten dik. Gazte jendea: arazo txikiak mendiak bezalakoak dituk zuentat, eta arazo handiei kasurik ez diezue egiten. Hor konpon, Mari Anton. Mundua dagoen bezala egon, eta zuek zuen zilborrari begiratu besterik ez. Hi, Karlos, hire laguntxo horiei esan lasai egoteko. Pasatuko zaiek. Esaera zaharrak ere honela dio: *Zer zela eta uste zenuen enamoratzea? Sillan eseri eta gitarra jotzea?* Kar-kar-kar. Ah, eta hire saioa benetan ona duk. Segi horrela, baina hurrengoan igarkizun errazagoak proposatu, ez hain intelektualak. Aiooo, Pelaiooo!

KARLOS: Gureak egin du, entzule. Gauak ustekabe bat baino gehiago ekarri digu, baina oraindik inork ez du igarkizuna asmatu. Dena dela, irratsaioa amaitu aurretik, farozainaren mezua entzungo dugu. Eba, nahi duzunean.

FAROZAINA: Gaurkoan Suso de Tororen testu bat ekarri dut: «`Zerena da besoan daukazun marka hau?`, galdegin dio nobelaren neska protagonistak mutilari. `Putatze ideiarik ere ez`, mutilak erantzun. `Soldadutzan ilaran jarriarazi eta tankeen

kontrako konbinatu bat txertatu ziguten. Denaren aurkako txertoa izan behar du, mundu osoaren kontrakoa`. Neskak, orduan: `Ongi legoke, munduaren kontrako txerto bat, bizitzaren kontrakoa. Neskatila zarela jartzea eta gero ezertxok ere minik ematerik ez izatea, ezertxok ere minik ez ematea`».

KARLOS: Oraindik astearen ekuadorrean gaude, entzule, baina ez ahaztu aste honetako igarkizuna: egunkari bateko zuzendaria, bidaiari joatekoa dena, baina abiatu aurretik egunkariaren egoitza zaintzen duen gau zaintzailearen gomendio jasotzen duena: `Bart amets asko egin dut, baina, batean, zuk hartu behar zenuen hegazkinak istripua izan du, airean lehertu da, eta nik uste hobe duzula bidaiari atzeratzea`; eta zuzendaria, badaezpada ere, ez da joan, eta biharamunean harri eta zur geratu da: hura joatekoa zen hegazkinak istripua izan du; baina zergatik kanporatu du zaintzailea, bizia salbatu badio ere, zergatik utzi du lanik gabe eta kale gorrian, nahiz eta diru kopuru ederrarekin bidali...? Gabon eta bizi uros.

3. gaua



SINTONIA

KARLOS: *Mundua lo dagoen bitartean* esna daudenen bilgunea duzu, entzule. Hala ere, aste honetako saioak entzun eta gero, esna eta kezkatuta gaudelakoan nago. Uste dut gehienok June agertu ote den jakiteko irrikaz gaudela. Eta dagoeneko Eba keinuka dabilkit, telefonoak jo eta su dabiltzala dio. Gabon, bai, Markos?

MARKOS: Epa, gabon. Nik, zera, Rubenek atzo kontatu zuenagatik, atzo eman zuen detaileagatik, argi dago hark ere ezagutzen duela eta pertsona bera dugula gogoan (isilunea). Uste dut inork baino hobeki sentitu dezakedala bera sentitzen ari dena. Ez dakit nola esan. Nik gaur bi gauza besterik ez dut esateko: batetik, eta hau da garrantzitsuena, June ez da agertu, ez dakit non arraio sartu den eta beldur naiz, egunetik egunera larriago nago. Zuk, Ruben, beharbada ezagutuko zenuen tokiren bat, June bereziki gogoko zuen tokiren bat esan nahi dut... Ez dakit. Alde horretatik ez dut besterik esan nahi. Baina bestetik esan beharra daukat gorroto dudala bart deitu zuen kamioizalea bezalako jende ahoberoa: gorroto ditut ustez dena dakiten helduak, ustez denaren gainetik daudenak, gorroto ditut aholku jario ibiltzen diren helduak: `Hau egin behar duzu, hobe duzu bestea egitea`. Zer daki berak gure bizitzaz? Eta, ostia, uste dut oso gustu txarreko txantxa izan zela June ikusi zenuela esatea. Bihotza golkoraino igo zitzaidan...

KARLOS: Ez dakit Mariok zer pentsatuko duen, Markos. Argi dago haren txantxa desegoki samarra izan zela. Badirudi orain dei bat ez, baina mezu bat, mail bat dugula, antza, June ezagutu zuen beste pertsona batena, Ursularena, eta gure erredaktoreak, Ebak berak irakurriko digu.

EBA: Nik ere ezagutzen dut June (isilunea), baina ez naiz gai zuzenean deitzeko. Sentitzen dudana idatziz hobeki adieraziko dizuet. Ez dakit inoiz zaldi baten gainean igeri egin ote duzuen. Nik behin bakarrik egin nuen. Zazpi-zortzi urte nituela. Udako oporretan, gurasoek Pirinioetako landa etxe batera eramanez ninduten. Hango nagusiek zaldiak zituzten eta haietan ibiltzen uzten ziguten, bakar-bakarrik,

kalparretik helduta. Behin laku batean sartu ginen eta, halako batean, lurra ukitzeari utzi, eta zaldiek hankak eragiteari ekin zioten, burua zerurantz jasota, igerian. Eta, zu, goian, zaldiarekin bat eginik, benetako amazona baten pare. Harrezkero ez dut halako beste esperientziarik izan. Edo bai. June ezagutzea halako zerbait izan zen niretzat. Ez dakit nondik nora, gure ikasle pisura agertu zen eta, egun batetik bestera, gelakideak ginen. Ni filologiako azken ikasturtean, eta bera lehenengoan. Baina sintonia sortu zen gure artean, eta laku hori zaldi beraren gainean zeharkatzen sentitzen ginen. Markos eta Ruben ere ezagutu nituen, ze hasieran, gauez, oheratu eta gero, hitz eta pitz aritzen ginen eta elkarri dena kontatzen genion eta haien berri xehea eman zidan. Junerekin, atsegina ikaragarria izan zen, baina aldi berean June ez zegoela ongi, Markosek ere esan zuen aurrekoan, eta horrek atsekabea eragiten zidan.

KARLOS: Ursularen hitzen bidez uler daiteke June halako depresioarekin edo zebilela. Gaur egun nahiko kontu normala da, baina desagertzeko arrazoia izan daiteke? Aurrera egin aurretik, Ursularen mezua nahiko luzea baita, Chuck-en musikak laztanduko gaitu.

MUSIKA

KARLOS: Aurrera, Eba, amaitu, mesedez, Ursularen mezua. Ziur nago denok irrikaz gaudela.

EBA: Ezin dut ukatu: oraingo hau ez da June desagertzen den edo ihes egin edo dena delakoa egiten duen lehen aldia. Ikasturtea hasi berritan, etxera bidean Prado parketik nindoala, norbait zegoela konturatu nintzen. Hasieran beldurtu egin nintzen: parke bat, gauez... Baina hurbildu nintzen eta bera ikusi nuen, begiak zabalik baina inora begiratu gabe, galdua, guztiz galdua. Gero jakin nuen kolapso moduko batean zegoela. Biharamunean, June berak aipatu zuen kolapso hitza, eta blokeoa. Norbaitekin buruz buru ongi egoten zen, baina jende aurrean hitz egin behar baldin bazuen, bihotza aztoratu egiten zitzaion, eta paralizatu egiten zen. Etxera joateko eta joateko, azkenean konbentzitzea lortu nuen. Elkarrekin

pasatu genuen lehen gaua izan zen (isilunea). Eta kolapso hori ikasketetan handiagoa egin zen: ikastea kosta egiten zitzaion, ez zen zentratzen, eta, ikasle ona izan arren, huts egiten hasi zen; eta horrek ezinegon handiagoa besterik ez zion egin. Ez zuen gure ikasle pisuetako jaietara joan nahi, apenas jaten zuen. Ni adorea ematen saiatzen nintzen, baina batzuetan plastikozko lore bat ureztatzen arituko banintz bezala sentitzen nintzen (isilunea). Hala ere, susmoa dut laster itzuliko dela. Baina era berean uste dut haren barneko arazoa ez zaiola besterik gabe desagertuko. Batzuetan, kalean barrena genbiltzala, esaten zidan: `Ikusten al dituzu orratz horiek, iltze moduko horiek?`. Ni ordura arte konturatu ere ez nintzen egin, baina harrezkero toki askotan ikusten ditut, denden kanpoaldean, komenturen batean, txaletetan... Erlaitzetan ipintzen dituzten orratzak dira, usoak pausatu ez daitezen, zirinik egin ez dezaten eta dena, jendea, horma, kakaztu ez dezaten. Eta Junek esaten zidan bera uso sentitzen zela, eta errealitateak halako orratzak ipintzen zituela bera egokitu ez zedin. Horra zer esaten zidan. Aste honetako igarkizuneko gau zaintzailea bezala sentitzen naiz, Karlos, ze gau osoa zain pasatzen baitut, lo egin ezinik, dei baten zain, atearen giltza hotsaren zain, gutun baten zain, baina nik amets premonitoriorik ez, ordea; eta zaintzaile hura bezala sentitzen naiz, alde batera, sari bat jasota sentitzen naizelako, hau da, June ezagutu izana, Juneren lagun izatea; baina bestera, kalean sentitzen naiz, kale gorrian... Ez dakit igarkizunaren erantzuna zein den; ez dakit June non dagoen...

KARLOS: Badakizu, Ursula, uste dut oso gustura egingo niokeela elkarrizketa bat Juneri. Benetan. Gustatu zait errealitatearen eta orratzen arteko konparazio hori. Uste dut noiz edo noiz denok sentitu garela horrela. Eta gogora datorkit Hitchcock zinema zuzendari zenak bere haurtzaroz kontatzen zuen pasadizoa: antza, haren aitak, semeari, Hitchcock txikiari, munduaren gogorra erakusteko, eta, gaizki jokatzuz gero, zigortua izango zela abisatzeko, nora eta kartzelara eraman zuen, lagun zaintzaile batengana, eta han utzi zuen, ziega batean, puska batean, ikasbidea har zezan... Susmoa dut Mariok, kamioizaleak, ere antzeko zerbait adierazi nahi zuela. Bere erara, noski... Barkatu, Ebak ohar bat pasatu dit: antza, entzule batek deitu du esateko, igandean, Arrasatetik Oñatira eraman zuela June, autostopean. Hemen aipatutako ezaugarri guztiak betetzen omen zituen. Mila esker entzule, beharbada zuri esker dena konponbidean egon daiteke. Ea, badugu beste dei bat. Uste dut gaurkoan ere Rubenek deitu duela. Bai, gabon, Ruben?

RUBEN: Bihar bertan joango naiz. Eskolan piperra egingo dut eta gurasoei autoa lapurtuko diet Oñatira joateko. June eta biok behin egon ginen, asteburu bat pasatzen: Aizkorri, Arantzazu eta Arrikrutz. Lagun batek hango kobazuloen berri eman zidan eta hango galerietan ibili ginen. Oso gogoan ditut kobazulo haiek... Badakizu? Ez du ematen, baina barnean ia ez du hotzik egiten... Baina badakizu, Ursula, June ezagutzen baldin bazenuen, gogoan izango duzu, noski, hark askotan esaten zuena: `Mundua mukizapi bat da`. Eta jakizu, Ursula, Junek aipatu izan

zintuela, beno, ez, Ula, ezta?, berak hala deitzen zizun, eta oso lagun mintzat zintuen. Eta, jakizu, ze oraindik ez dut amaitu, eta igoal, igoal, Markosek, portzierto, hi sekula ez hinduen aipatu, Markosek ez du jakingo, baina nik behin biak batera, besotik helduta, musuka, zirrika ikusi zintuztedan, Ursula, ez ezazu ukatu. Astegun buruzuri batean izan zen. Batere pentsatu gabe, Bilbotik Gasteizera joan nintzen, bai, jeloskor nengoen, ezin nuen onartu Junek ni utzi, ni abandonatu izana. Nik ere ez dut ukatuko. Unibertsitate inguruan ibili nintzen, eta zuen etxe inguruan, Ariznabarran, han kokatu nintzen, eta ni zain, kanpoan, ni ere zain nago eta, baina hartan zelatan egon nintzen, eta zinemara joan zineten, eta han ere zain, eta gero Gorara, eta handik irtetean bereziki hurbil ikusi zintuztedan, eta gero, etxera bidean, parke zuri batean eseri eta, egiaz, ezin nuen sinetsi, kristorena izan zen, eta benetan, mila bider madarikatu dut neure burua egun hartan Gasteizera joan izanagatik. Putza, putza eta putza! Ez, ez iezadazu ukatu, ez esan oraingoan ere animoak ematen ari zinela, oso makal zebilela eta zure adorea behar zuela. Bai, jeloskor nengoen, eta errezeloa nuen norbait zegoela (isilunea). Halakorik, baina... Zurekin. Kristorena izan zen. Eta horregatik nik ere uste dut, Junek bezala, mundua mukizapi bat dela, beno, bai, baina mukiz betea, zikina, oso zikina... Bai, Juneri kalte besterik ez diozue egin, kalte handia. Zaldi gainean igeri egitea, bai, oso polita kontua, baina pitokeria hutsa; funtsean, ez diozue oreka bilatzen lagundu, aintzira horretan hondoratzen utzi duzu, beno, ez: duzue. Madarikatzen zaituztet. Igarkizunean ez bezala, gertatuko den istripuaren berri izan, eta laguna jakinaren gainean jartzen ez duten horietakoak zarete zuek. Bihozkabeak. Bazter nahastaileak.

ESZENA: zelatan

KARLOS: Sentitzen dut, giza harremanen labirintoa oso da bihurria, Ruben. Washington Irving-en esaldi bat ekarri didazu gogora: «Amodioa bakar baten tristezia da, biren zorientasuna, eta hiruren haserrea eta liskarra». (Isilunea) Berrero ere Farozaina dugu gurekin. Nahi duzunean, lagun.

FAROZAINA: Gaurkoan, Ursularen mezua entzunda, poema batez oroitu naiz. Ez dut

itzultzeko betarik izan eta bere horretan doakizue. Oliverio Girondoren poema bat da: «No sé; me importa un pito que las mujeres tengan los senos como magnolias o como pasas de higo; un cutis de durazno o de papel de lija. Le doy una importancia igual a cero al hecho de que amanezcan con un aliento afrodisíaco o con un aliento insecticida. Soy perfectamente capaz de soportarles una nariz que sacaría el primer premio en una exposición de zanahorias; ¡pero eso sí! —y en eso soy irreductible— no les perdono, bajo ningún pretexto, no les perdono que no sepan volar. Si no saben volar, ¡pierden el tiempo las que pretendan seducirme!».

KARLOS: Gaur gauean June hobeki ezagutzeko aukera izan dugu, bai June bai haren lagunak. Bihar haren itzuleraren berri emateko zortea izango ahal dugu... Dena dela, ez ahaztu biharko igarkizuna asmatzeko azken eguna dela eta saria oso bidaia kilikagarria dela. Bitartean, gabon eta bizi uros.

4. gaua



SINTONIA

KARLOS: Ongi etorri, entzule, *Mundua lo dagoen bitartean* saiora, zatoz ahopekoetan aritzera, ausart zaitez gaueko hitzak lau haizeetara esatera. Bai, Eba, badirudi lehen deia prest dugula. Bai, Markos?

MARKOS: Ostia! Ostia puta! Karlos, bai, Markos naiz eta Rubenekin, zera, barkatu, uste dut gehiegitxo edan dudala. Gaur osteguna da, ostegun gaua (mozkortuarena egiten) eta larrauldi baten beharrean nago, zera, ez barkatu. Nahi duenak dei dezala 695, zera, 605 47 27 86, zera, 68. Denekin egin nahi dut txortan. Ohara dagoen txakur baten antzera nago, bero baino beroago esan nahi dut. Auuu! Mundu hau zera da, kaka zaharra eta, ah, bai, Rubenekin ados nago, mukizapi bat da, gripeak jota dagoen batena baina, zimur-zimurra eta mukiz betea... Itxoin. Burmuinera alkohola besterik ez zait iristen. Ea, bihotz, bidal ezak odol apur bat gorantza. Ez zakiat zertan ari nintzen. Uste dut nire bila datozela. Ostia! Beharbada Juneren bila joango dira. Larrialdi bat. Munduari su eman nahi diot. Hurrena ni irtengo naiz egunkarietako ezbeharren atalean. Aizak, hi, kamioizale, ziur nagok hire emaztea une honetan hiri ari zaijala adarrak jartzen. Ostia! Nik June maite dut, entzun, Ula? Ruben, igoal *menage à quatre* egin zezakeagu, laurok zera, kontua txortan egitea da, ezta? Barkatu, uste dut zeratu egin naizela, eta onena zera dela, papera biltzeko kontenedore horietako batean sartzea. Zorte apur batekin, biltzaileek paper artera botako naute eta kamioiko makina birrintzaileak txiki-txiki egingo nau. Kirris-karras eta akabo! Eta zorte gehiagorekin sikiera birziklatu egingo naiz. Ostia puta... (ahopeka)

KARLOS: Ospera, Markos, txantxetan ibiliko zara, ezta? Ez dut uste gu entzuterik izango duzunik, baina, nik uste, kabinatik irten, eta etxera itzultzeko ordua heldu zaizula. Dena dela, *Mundua lo dagoen bitartean* saioak jarraitu egin behar du eta badirudi badugula beste dei bat. Bai, esan?

RUBEN: Gabon. Gabon edo. June ez da agertu. Goizean goiz Arantzazu aldeko kobazuloetara joan naiz, baina ez dut aurkitu. Ez dut haren arrastorik ikusi. Oso

bitxia da. Urduri baino urduriago nago. Eguerdian, azkenean, haren gurasoei deitu diet. Aita ez zegoen. Aste gehiena kanpoan pasatzen jarraitzen du. Amak hartu nau. Ez zekien ezer. Ez diot irrati konturik aipatu. Harentzat kristorena izango zen. Ez dakit esan, ez esan, baina une honetan, igoal... Kontua da, ba, orain dela bi bat urte, garajeko gaupasaren garaian gutxi gorabehera, gurasoak asko kezkatu zirela Junerekin. Kontrolatu nahi izan zuten. Aita informatika eta telefonia kontuetan aditua da eta Juneri telefono bat oparitu zion urtebetetzerako (isilunea). Beno bai, hasi egin naiz eta kontatu egingo dut. Sakeleko telefono horretan sistema ezkutu bat zegoen, eta gurasoek tekla bat sakatuta deitzen ziotenean, Junek ezer sumatzen ez zuela, telefonoa mikro bihurtzen zen, eta gurasoek entzun egiten zuten June ze girotan zegoen, gutxi-asko jakin egiten zuten alaba zertan ari zen, zertaz ari zen, norekin. `Zuk ere jakingo duzu`, esan dit Juneren amak, `adin horretan gurasoen eta seme-alaben arteko harremana ez da oso ona izaten`. Baina bat-batean isildu egin da. Eta Juneren gelara eraman nau eta han, apaletan, nik egindako opari bat ikusi dut: Galizian erosi nion sorgin bat, meiga bat... Putza! `Premonizio bat izan dut`, esan dit amak gero. Antza, ohar baten bila ibili da, Junek oharren bat utziko zuela bururatu zaio. Ez dit esan, baina suitzidak izango zituen gogoan... (isilunea).

KARLOS: Zer esan nahi diguzu, Ruben? Akaso...?

RUBEN: Gaur, egunkarian seguru asko irakurriko zenutenez, emakume baten gorpua agertu da itsasoan, Matxitxako inguruan... Juneren ikasmahaietan, baina, zorionez ez zegoen ezer. Eta, gero, ordenagailua piztu du. Antza, gurasoek oparitu zioten telefonoak GPS sistema ere badu, eta kristorena da, erotuta daude. Eta interneten bidez jakin dezakete June non dagoen. Larri geunden. Amari, gainera, asko kostatu zaio sistema martxan jartzea, eta negarrez hasi da, eta azkenean, putza eta zaputza, azkenean lortu duenean, EZ OPERATIBOA hitzak agertu dira pantailan: Junek telefonoa itzalia zuen, edo bateriarik gabe bestela. Ni triste joan naiz Juneren etxera, baina tristeago irten naiz handik. Igoal Ursulak. Besterik baldin badakizu. Besterik bazeneki. Igoal beste entzuleren batek. Ze, Markosek...

KARLOS: Ufff... Ruben, ez hitz ez hitzondo utzi nauzu. Eskerrak beste dei bat dugun, bai, honek ere Junerekin edo, hobeki esan, Markosekin izan dezake zerikusia. Aurrera, Mario.

MARIO: Bai, Karlos, ni nauk berriro ere. Markosi barkamena eskatzeko deitu diat. Arrazoi dik, joder, helduok askotan gazteei halako nagusikeria aire batekin hitz egiten zieagu; gainera, nik neuk gaztetan egindako ezegiteko asko kontatuko banitu... Egia esan, ez dizuegu oso mundu itxurosoa utzi, eta, bai, erraza duk gero kontuak eta ardurak eskatzen hastea. Nire kamioiaren kabinatik mundua ikusten diat eta sarritan ederra iruditzen zaidak, baina gogorra ere baduk. Zenbat putetxe errepide bazterretan, zenbat putetxe geure baitan. Arraioa! Barkatu. *Consejos vendo y para mí no tengo*. Eta arrazoi duk, gainera, Markos: emazteak aspaldi jarri

zizkidaan adarrak, seguruenik jakin egin zuelako nik lehenago jarri nizkiola (isilunea). Ah, eta Karlos, igarkizuna, burutik kendu ezinik ibili nauk: kanpora joatekoa den egunkari zuzendaria, bidaia ez egiteko gomendatzen dion gau zaintzailea... Ez didak sinetsiko, baina azken egunotan Errioxa aldean ibili nauk, gauez ibili ere, eta etengabe ikusten nitian matrikula zaharretako LO letrak, izan LOgroño hiriarenak, baina baita erremolkeetako toldoetan ere, LOpetegi edo ArbuLO, eta bide seinaleetan: SoLO en Cameros, Santa CoLOma eta LOdosa. Eta nik uste nian hortxe zegoela koxka, `lo` hitz horretan. Mekaguen laputa! Eta ni, gainera, gidaritzan, eta ezin, ba, lokartu! Errediola! Eta azkenean, azken-azkenean, konturatu egin nauk: egunkariko zuzendariak zaintzailea saritu dik, hoba ez, bizitza salbatu zioz eta, baina lanik gabe utzi dik, zergatik eta, gauez, erredakzioa zaindu beharrean, lotan egoten zelako: `Bart amets egin dut hau eta hau gertatuko zitzaizula`. Eta bera bezalako zaintzaile alferrontzi potrosoekin lapurreta erraz asko egingo dutelako. Hori duk, ezta, Karlos? Hortaz, Kariberako bidaia hori, niretzat da, ezta? Hala baldin bada, Juana, emaztea eta biok joango gaituk, eta akaso han, gozo-gozo... Entzun al dun, Juana? *Ay, quisiera ser solecito para entrar por tu ventana* rantxera kantatuko dinat. Inoiz ez omen duk berandu. Eta barkatu, Markos, horren ahoberoa izateagatik. Ah, eta gaur zerbitzu gune batetik deitu dut... Gaur, gaur ez nabil txantxetan.

KARLOS: Mila esker deitzeagatik, Mario, eta mila esker, deia egiteko, kamioia gelditzeagatik. Eta zorionak, bai horixe. Zu bai, zu; bete-betean asmatu duzu: gau zaintzailea kanporatzearen arrazoia gauez lo egitea zen! Aurrekoan ez dakit, baina gaur merezimendu osoz irabazi duzu saria. Eta hartu atsedean, gizona, egizu lo potzolo bat.

KARLOS: Nik uste eten bat egiteko ordua dugula, entzule, emozio asko dira eta Chucki txanda emateko ordua da. Nahi duzunean.

MUSIKA

KARLOS: Eba, gure erredaktore fina, gaurkoan ere Ursularen mail batekin datorkigu. Nahi duzunean, Ursularen mezuak ezin hobeak dira gure jakinmina pizteko eta guk esna jarrai dezagun.

EBA: Gabon... Ursula naiz eta dudatan egon naiz, idatzi, ez idatzi. Eta ez pentsa, Ruben, zure atzoko deiari erantzuteko idazten dudanik. Ezta pentsatu ere. Uste nuen nire atzoko mezuarekin nahikoa argitu nuela, uste nuen argi geratu zela Junerekin harreman berezia nuela. Baina oker nengoen. Berriro. Nik ere izugarri maite dut June, eta ez dut uste harentzat kaltegarria izan naizenik. Kontrakoa. Harrokeriarik gabe, Ruben, Markos. Uste dut Junek zuen bion maitasuna jaso duela, zuek biokin maitemindu zela, baina susmoa dut berak konkistatu nauela ni, eta behingoz ez zuela konkistatua izan nahi, konkistatzaile baizik. Eta arazo handiagoa nik neuk izan nuen, ez bainekien nahi nuen ala ez. Harreman finko bat esan nahi dut. Seguruenik bai. Halako konpainiarekin mundua habitagarriagoa zen, inondik ere (isilunea). Da, esan nahi dut. Gogoan dut nola esaten zidan zuei bioi galdetu izan zizuela ea nola zihoan jantzita elkar ezagutu zenuten egunean, eta ez bata ez besteak ez zenutela arrastorik ere. Esan ere esaten zidan gizonei gen bat falta zitzaizuela, estiloarena... Eta barkaidazue, zuen kontura barre egiten genuen. Baina gaur batez ere niregatik idatzi dut. Edo biongatik. Ea lortzen dudana. Ni ere ez naiz txantxetan ari. Esan nahi dudana larria da (isilunea). Esan nahi dudana da... gaixorik nagoela. Filologia amaitzen ari naizela, azkenean, hara non, buruan (isilunea) tumore bat atzeman didaten. Junek egunetik egunera argalago ikusten ninduela esaten zidan, baina nik buruko minez nengoela erantzuten nion, eta ez nengoela jateko oso gogotsu. Migrainak izango zirela esaten nion, kar-kar-kar, eta pasatuko zitzaizkidala... June sendagilearengana joan zen eta, horra, ezertxo ere; ni, oster, joan banintzen, joan nintzen. Baina dena jakin zuenean, gaixotasunak are gehiago lotu gintuen. `Zu gaixorik, ni izurraturik: antzeko parecido`, esaten zidan, eta ez zitzaiola inportatuko biok ere gaixotasun larri berbera izatea, lakua elkarrekin zeharkatzea eta elkarrekin hondoratzea... Azken asteetan, begiak begietan geratzen ginen, hitz erditxorik ere esan gabe, eta negar egiten genuen, gozo, malko guztiak hustutzeraino. Oroitzapen hauek oilo ipurdia eragiten didate. Ez dakit. Ematen du orain konturatzen naizela bizitza zer den. Heriotza zer den. Eta kontua da Junerekin hain zuzen ere horregatik haserretu nintzela (isilunea). Seguruenik sinesteak lanak emango dizkizue, baina berak nirekin batera hiltzea nahi zuen (isilunea). Nik, zera, proposamen bat egin nion. Bera urte sabatikoaren temarekin zebilenez, urtea ez, baina hilabetea edo egin genezakeen, hilabete sabatikoa. Ez daukat denbora askorik. Trenez joan gintezkeen, Inter Railean: Paris, Kopenhague, Erroma... Eta gero geroakoak. Eta hitzordu bat proposatu nion: ostiralean, hau da, bihar ez dut esango non, abiatu egingo ginen... Edo gara.

ESZENA: geltokian

KARLOS: *Mundua lo dagoen bitartean* gaueko hitzak esan dizkiogu elkarri, eta bihotza urratzen duten albisteak izan ditugu, eta baita bihotza pozten dutenak ere... Gutxienez, badakigu June ongi egongo dela eta, akaso, agian, biharko hitzordura agertuko dela eta Ursularekin joango dela. Albiste horren iragarpenarekin amaitu nahi nuke gaurko irratsaioa, aste honetako azkena hain zuzen ere. Baina Eba gogorarazten ari zait gaurkoan ere farozainak ez digula huts egin, eta honatx haren deia.

FAROZAINA: Gaurkoan Juan Karlos Perezen hitzak ekarri ditut. Honela dio: «Uste dut beharrezkoa dela irtetea, gauza diferenteak ikustea, pertsona diferenteak ikustek ni erlajatu egiten nau, eta, aldiz, etxezoek, lagunek, herrikoek, mugatu egiten nautela sentitzen dut, heldu egiten dizute, lotu».

KARLOS: Gure farozain hau psikologo ona da, bai horixe. Eta orain bai, entzule, gabon, gabon edo, izan ere mundua laster batean esnatzen hasiko da eta gu lotara joango gara, denbora gutxirako besterik ez bada ere, horixe baita gautxorion patua. Baina asteburua zain dugu, beso zabalik. Datorren astean, datorren asteoak. Eta, aizak, Mario, ondo pasa urruti horietan! Chuck-en musikarekin uzten zaituztet (isilunea). Gabon eta bizi uros.

MUSIKA



EPILOGOA

MIGUEL: Ondo, ondo, lagunok. Primerako lana egin duzue. Gure programa gero eta okerrago zebilen, gero eta entzule gutxiagorekin, baina aste honetan kristoren audientzia lortu dugu. Zuei esker. Ez dakit Juneren historia sinesgarria izan den, hunkigarria izan den, baina morboa piztu du, eta horixe behar genuen, carnaza hutsa, amua. Sharea izugarri hazi da eta hainbat etxek publizitate eskaria egin digute. Dirua, horixe behar dugu, sosa. Audientzia osoaren %52 *Mundua lo dagoen bitartean* entzuten egon da, eta konpetentziako saiorik onena %12ra besterik ez da iritsi. Hau busti beharra dago, champagna aterako dugu, eta hori ere nire kontu. Lagunok, goazen ospatzera!

